



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ondarea, Urbina baserria, Abezia

Ondarearen balioa

Arabako Foru Aldundiak diruz lagundutako kultura ondarea kontserbatzeko eta zaharberritzeko lana modu errazean zabaltzeko aukerak.

Xedea

Dibulgazio formula errazak eskaintzea, kultura ondarea kontserbatzeko eta zaharberritzeko dirulaguntzak eskatzen dituztenek egin ditzaketenak, gizartearen onurarako.

Edukiak: kontakizunak eraikitzea

Testuak: [Eraikinari eta haren inguruneari buruzko informazioa](#)

Elementuari buruzko informazio ezaguna, ikertzaileen eta, oro har, publikoaren eskura egon daitekeena (GeoArabaren konektatu):

- **Historia:** Noiz eraiki zen? Nork eraiki zuen? Zenbat denboraz funtzionatu zuen? Zer erabilera izan zuen? Nola ezagutzen eta gogoratzen da?
- **Esku hartzea:** zergatik erabaki da eraberritzea?, edukitako zailtasunak?, birgaitze prozesuaren osteko asebetetze arrazoiak?
- **Dibulgazioa:** babestu, transmititu, dokumentatu eta partekatuko den eraikinaren memoria. Zergatik merezi du toki hori ezagutzea?
- **Eraikinari lotutako ondare immateriala** (eraikuntza teknikak, lanbideak, jaiak, ohiturak, tradizioak, abestiak, atsotitzak, istorioak...)

Argazkiak

- Esku hartzearen aurreko, bitarteko eta ondorengo irudiak
- Igo argazki libreak Wikimedia Commons-era

Ikus-entzunezkoak

- Birgaitzearen aurreko, bitarteko eta ondorengo prozesuaren argazkiak dituen bideoa
- Bideoa, argazkiak eta esku hartzea zergatik egin den azaltzen duen ahozko lekukotasuna dituen.
- Bideoa, argazkiak eta bideoan grabatutako lekukotasuna dituen, esku hartzea zergatik egin den azaltzeko.
- Birgaitutako ondasunaren balioari buruzko ahozko lekukotasuna

Beste modu batzuk...



Edukiak zabaltzeko aliantzak

- Kontzejuan bizi diren edo bertara doazen pertsonak inplikatzeko formatu dibulgatzailea sortzeko.
- Kuadrillako teknikariekin harremanetan jartzea (Kultura, Turismoa...).
- Eragile turistikoekin harremanetan jartzea: ibilbideetan txertatzea.
- Herriko ikastetxeekin edo herri hurbileneko ikastetxeekin harremanetan jartzea eta bisita gidatuak eskaintzea.
- Unibertsitatearekin harremanetan jartzea: ikasleentzako praktika gisa, birgaitutako lekuari buruzko dibulgazio proiektu bat garatzea.
- Poetak maiatzean ekimenarekin edo idazleekin harremanetan jartzea, birgaitutako elementuen inguruko kontakizunak sortzeko.
- Ilustratzaileekin harremanetan jartzea, birgaitutako elementuen ilustrazioak egiteko eta hainbat urtetan zaharberitutako obrekin erakusketak egiteko.
- Arabako wikimedialariek harremanetan jartzea: irudi libreak igotzeko, wikidatan elementuak sortu/osatzeko eta Wikipedian artikulua sortu/hobetzeko, ondare elementuaren iturri fidagarriak badago.

Zabalkundea

Herritarrei emandakoa itzultzea, irudi, bideo, audio, kontakizun, ibilbide eta abarren bidez, esku hartutako ondareari buruzko informazio esanguratsua eskura izan dezaten.

- Zabalkunde lekua: aurrez aurrekoa, kartelak, Interneteko bideoak, Wikimedia proiektuak
- Edukiak gaztelaniaz eta euskaraz
- [Hizkuntza eta irudi ez-sexistak](#) erabiltzea
- [Creative Commons lizentziak](#) erabiltzea (sortutako materialak berrerabiltzeko aukera ematen dutenak)
- Elementuak [GeoArabian](#) sartzea eta sortutako zabalkunde edukiarekin lotzea
- Zaharberitutako elementuaren informazioa eskuratzeko aukera duen QRa
- Leku horretan bisitarako gune bat prestatzea
- Museografia proposamena
- Etab.



Wikiauzolanak

Xedea

ConMiWiki proiektuak kontzejuetako herritarrekin batera Wikimedia proiektuetan Arabako ondarearen edukiak hobetu nahi ditu, eta esparru horretan Arabako kontzejuei aukera ematen zaie Arabako Foru Aldundiaren kontserbazio eta zaharberritze dirulaguntzekin birgaitutako ondarea Wikimedia proiektuetan dokumentatzeko.

Lehenengo urratsak:

- **1. urratsa** Kontzejua Arabako wikimedialariek harremanetan jarriko da: mentxu@gmail.com
- **2. urratsa** Wikimedialariek berrikusiko dute zer informazio dagoen Wikipedian, Wikidatan (ondare fitxak) eta Wikimedia Commons-en (argazkiak eta multimedia elementuak).

1. wikiauzolana Baterako lan saioa:

- Baterako lan saioa (2,5 ordu) kontzejuko pertsonekin eta wikimedialariek, ikusteko zer informazio garrantzitsu falta den (edukiak, fitxak, irudiak...).
- Wikimedialariek edukiak hobetuko dituzte jasotako jarraibideekin.
- Prest egonez gero, diruz lagundutako birgaitze prozesuaren audioa/bideoa grabatzea, Wikimedia Commons-era igotzeko.
- Ideala: Kontzejuko adinekoak (ezagutza) eta gazteak (argazkiak egitea, bideoak grabatzea, Wikimedia proiektuetan laguntzea...) inplikatzeko.

2. wikiauzolana Itzulketa saioa:

- Sortutako informazioa herritarrek eta wikimedialariek batera berrikusteko lan saioa (2,5 ordu).
- Egindako lana eskertzea eta ospatzea.
- Norbaitek editatzen ikasteko interesa badu, edizio taldea aktibatzea, lehen urratsetan laguntzeko.



Iturria: Mentxuwiki, Wiki Takes Añana 2023, Portilla

